

## **Munduko bigarren gerla Mendiben**

E.: Beñat, xuk hamabost urte xinituen, beraz, hogoita emeretziko gerla ori hasi zelaririk? Alemanen (...) orroit xirea?

B.: geixeo seuro, artian ni egon ninduxun beste nunbait mutil, eta geo, Mendiben jarri nuxu mutil hamazazpi edo hamasei-hamazazpi urtetan or, eta ordian, gure herriko denak gerlaat partitu zitxun, gizon ezkondu ta gazte ta denak, eta mutil, eta denak. Ni mutil nintzan etxean bi aizpa zitxun gelditu etxean bakarrik. Bazixien mutila etxean, ordukotz, nausia, eta etxeko seme at, eta bi mando ta denak ereman zitxien, artzaiña, bazixien beste mutil bat, bortian egoiten zena ua beti, ta denak orik, bi aizpa etxean bakarrik gelditu.

E.: eta zien familian ere, xure anaiak eta joan txu denak.

B.: ba, ba, ni... Ene bi aneia zaarrogokuak, ek e gerlaat joanak zitxun, batek, ez zaarrenak, bigarrenak, mila beatzieun ta amostian sortia zuxun bigarrena, eta hak ina zixin, jaanik, hiru urte soldado, eta hoita amaseian ba ari zuxun an bestaldian gerla, eta hantik jiten zitxun espakatuik anitz gazte mendi otaik hunat, ta hor Camp de Gurs bazuxun, han biltzen zitxien denak han, camp aundi zeit, ta ordian gure anaia hiru urte inik jin zuxun etxean inxtant bat, ez baitzien ofizioik ez deus e noapait joaiteko, mutil egona hua re, eta geo berriz rapelatu zixien, hangoen zaintzea joaiteko, ta han in zixin ez ziaxixut zonbat, ta gerla deklaatu, ta hantik berriz gerlaat, ta geo, gerlak ez zixin anitz denbora iraun, eta gerla gelditu-ta, Hitlerrek ereman zitxin denak Alemaniak, gure bi anaiak eta denak, ta han, hasteko, ordian, bigarren orrek bost urte preso. Bestia soutien de famille gisa libratu zuxun zaarrena leentxeot. Bestiak in txi orotaat hiru urte xerbitxu, eta bost urte preso, beatzi urte in txi denak, ara, zerbitxu, beti han, soldado kondu. Ara, nik ikusi tuanak oriek.

E.: eta Mendibe eremu okupatia zuxun? Irati nola zen?

B.: xade, ta leenik Donazaarreano zuxun, Donapetria beita or, Gastambide? Horaano okupatia. Gu zone librian gintxun hemen, bena inxtantian gero dena, Iratiraano ta dena artu zixien, Xuberoak eta denak artu zitxien gero, Auxki hotelak eta denak, ta hemen hotela, hoteleko senar-emazte atzu baitzien, Pedro hor, hek senar-emaztiak ereman zitxien preso alemanek, jende pasan, ta ez dakit nunbaitik salatiak zienez edo ze, jende... rothschildtiarrak eta hek paastiak ziela, ta hek preso ereman zitxien, ta chalet-a okupatu, alemanak hor egoiten zitxun, ta gu bagintxun ordian bi gazte, hor Zurtzain egoiten ginenak, ene launa bere etxekoa zuxun, aita-amendako ai zuxun ua artzain ta ni mutil, delako etxe ortan, ta egun guziez pasten zitxun ementxe erreka uni goiti, ez zuxun bideik ordian, ta goiz guziz an gintxin etxolan, pasten zitxun Egurgiraano, frontiera au zaintzen zixien, baitzakiten gazte guziak espakatzen

ai ziela, bestañez bear zitxien denak Alemaniaa bildu bear zitxien an lanian ar aazteko, eta egun guzietz an gintxin, eta egun batez, ene laguna, gaztia, joaiten duxu etxeat, ta aita, aita jin zuxun ta etxeat, ta hortzain arreñatzeko-edo bear zixin joan, ta bezperan, ta gu bi gaztiak ikusiik, eta ikusi zixien xaar ua an, ta eni lotzen, xaarrari ez zixien deus e erran, eni lotzen duxu alemanez, hitz bat ez emaiten frantsesik, eni zernahi erranka oihuka, ta nik erran niakoxun hori aita zela, ta mutikoa joana zela hortzen arreñatzeko dena esplikatzen denak, ta ez zixin deus e itekoik, bazixien halako puñel haundi batzu, ua ateatu, ta zarri ziaxun olaxe eni tripan, ta sartzen dako ta erran ziaxun bestiari, ta bestiak erran ziaxun: “ez, ez zakala in” seurro, ta sartu zixin, ta joan zitxun, ara. Orduko heen beldurra guk. Nik ez nixin kusi nai Hitlerrik ez besteik, hara, guretako.

E.: zertaz beldur izan zen, safre ori ateratu zuelarik, pentsatzen zixin xurekin zen gazte ua espakatu zela?

B.: Españaat espakatu zela, ua zixin pentsatzen, manerak (...), ta nik ez nakola egia erten, nik erten niakoxun esplikatzen, ez zixin deus e konpreintzen, bena hortzain arreñatzeko jautsia zela, “demain il va revenir” erran niakoxun, bena ta doaike in zixien beren baitan gezurra erten nakola nik doaike, safre ua artu, ta ua sekula eni sartu balu, biak ilak gintxun. Bestia an zuxun, beste alemana, biga beitzien, ua harmaikin eta denak, ta hak ene... Ene lagunain aita hak, gizon fierra baitzen oono, ta bortitza, hak aizkora kusten niakoxun bere ondoan zixin. Eni sartu balu, hak tiatuko zuxun ari aizkora ukaldiz ta bestiak biak ilen gintxin, ara, guk ukan tuun beldurrak. Gure anaiak biak han gosiak ilik an Alemanian, eta gu emen, berriz, atakatiak, ara, nik oriek ez xit sekula maite ukan, han gosiak ilak, zikinak, gose... Ja... Zorriekin egonak zitxun.

E.: kondatzen duxu ere beste aldi batez, haatik, ongi pasatu zela alemanek zier taloak egiten...

B.: ba, ba, ordian iziarriko euriak ari zitxun, ta giilian baitzen kabalendako aterbe at, han sartiak zitxun, aterbian, eta gu ardiak deitziik, eta alatuik, ta ai gintxun taloen iten askaiteko, eta jiten zuxun supazterra... Sua biztia baiginin, jiten zuxun baño, ta zigarreta pizten zixin, berriz launa guri so, ta drole atzemaiten zixin ze ai ginen gu eskuz, taloa in, ta bestiak erre, ta ola ai gintxun, ta ba zegonda guzietz eldu zuxun bizpairu aldiz jiten duxu at, beti ila zigarreta, ta piztu ta inxtaño at guri so egon, ta berriz joaiten zuxun, ta erran niakoxun: “na uka talo bat in dezaun orindako, orik gosiak tuk inposilez, ta baietz, akort gintxun, iten dixiu talo bat geio eendako, ta bi gasna puska mozten txiu gure gasnatik, ta hua emaiten, ta joan zuxun kontent giilea, ta inxtant bat an jan zixien, ba gu re asiak baiginen jaten, ikusi zixin guk e jaten

gindiela doaike, ta eman gindiexun, ta jin... Jan zutelaik jiten duxu, beti beroa, jiten duxu, ta moltsa ateik, nai zixin paatu, ta gu pipatzen asiak ordian, ta ordian erran niakoxun zigarret erran nai du ta ui ai kontent eman ziauxun maiain gaiñean tabako puxka at, ara.

E.: sosaren orde, ze, tabakoa artu zinuten?

B.: tabakoa hartu, hara. Hek gisakoak, eh! Bena bestia, erran duun ua, ua zarra. Hek gentillak, bazitxun oitan e, trukutzen baitzien, iten zixien aste bat beharba emen, ta geo hek joan ta bestiak eldu zitxun berriz, beti bazitxun lifeentak.

E.: eta jendia pasatzen zen hemen gainditik? Menditik eta...

B.: ba, ba, ta guk hemen, mendi hoon goiti, ta jiten zitxun etxolaat, eta Espñaateko bidia, ta "leku zizten fite, jien tuk alamanak! Eta gorda zite ortxe oianari fite!" ta direkzionia emaiten, ta oalxe.

E.: eta laguntzen zinituzten?

B.: guk ez, ordian ez, een bazitxien ba laguntzaliak, ba zonbaitzu berak joaiten e ba, bazitxien laguntzaliak hek zautzen zutenak, ek ez gintxin ikusten ez.

E.: eta gerla denboran ez zinuten edozoin gauza erosten aal, eta denak razionatiak zitxun.

B.: denak razionatiak, denak, ez gindixin ilaitian ticketak bazitxun sukriak eta anitz gauza hola, ez gintxun arribatzen, ez zuxun aski. Ticketa atzu, ilaitia finitu artio bear ginixin batxuri-salda in, ez bazen kafeik artzen aal goizetan, eta jeiki, ta geo berriz jiten zitxun beste ilaiteko ticketa berriak, ordian, guk orik guziak kusi tuu.

E.: sofritu uzie?

B.: sofritu ez, etxean baitzien jateko... Guk ez xiu sofritu ez, guk talogeia, ta xingarra, ta lursaarrak eta salda egun guziz, iten ginixin leguma-salda ta ilarra, ta lursaar eta karrota, guk ez xiu sofritu ez ortako.

E.: bainan ainitz lagun galdu.

B.: ba, ba, ba, gerlan, eta batxu hemengoak Espñaat joan-eta han e gerlan hil dienak, biga seurik, gure gure zaunak.

E.: eta noiz finitu zen gerla? Nola jakin zinuten? Nola pasatu zen?

B.: ba, gileat asiak ziela berriz hementik espakatu zien mutiko orik, Mendibekoak e bazitxun bospasei, seurik, eta horik Espñaatik ez diakixut noa joan zien, Aljerian gaindi, berriz sartu zitxun Frantziaat, ta ze in zien De Gaulle-k, partitu, batxu ba liburiak seurro, nik bano obeki... De Gaullek berriz muntatu zixin hor, ta Alemanari berriz gerla eman zixin, ta ordian emeki-emeki, ez baitzien, doaike, iten aal, lekutu zitxun, emengoak eta denak partitu aldeat,

ta geo inxtantian libratu, ameikanoak ek, laundu zixin Frantzia Ameikak, ta Ameiketan asi zitxun gue anaiak eta re zigarretak ameikanoek-eta emanik, kanbiatu zuxun, ta inxtantian, geo galdu denak. Alemanak nik ez xit maite ukan hemen potretian artzen zitxien eskoletako haurrak-eta, an errekreazione denboran-edo, pentzea atea-ta “monnaie ici” ta sos xehe atzu bota, ta ek bear zitxien jarri besoen gaiñian ta aoaikin bildu, eendako zitxun geo sos ek, ta filma ua han erakusten zixien alemanek, hara, “Frantziako aurrak eta belarra jaten ai tuk”, ez tuziea intzun oriek? Ara.

E.: xuk ez duxu sekulan soldado joaiterik ukan?

B.: ez. Ni hemen nintzalaik mutil, arribatzen ninduxun... Arribatzen ninduxun hooi urtetaat, eta bear nixin Alemaniak joan langile, jaanik presonierrak han zitxun, ta guk joan bear ginixin hooi urte soldado joaiteko partez, Hitlerrek haat biltzen zitxin emengo soldado guziak, soldado joaiteko partez, ta hortako bazuxun sursis-a, nola ginen etxe... Ni mutil etxe bear zen, eta sekretarioak in zixin galde bat, ta Oloroneat bear nixin joan prefeturaat ukaiteko, emengo sekretarioak in zixin, erreeint bat zuxun, Mendibeko erreeinta, in zixin lauen, lau... Ta gu biga joan gintxun lau... Lau galde inik, prestatuik prefeturan ukaiteko surcie-ak, eta bizikletez joan gintxun Olooneat, baixu nun den! Ni bizikletian ibiltzen ba puxka at, bena ez usaiaik bate, ta joan gintxun, eguna eman ginixin bidian, haat arribatu-ta, sekretarioak, mazte bat edo biga han, ta ba, prefeta ordian berian partitia zela, eguna beteik, to: “biar goizian bea uzie jin”. Bon, ba, hotel batian galdin ginixin ganbara, sosa re ez baitzen biziki, doaike, jateko zeit e ba, puxka at, eta gaua pasatu, ta biamun goizian jeiki, eta joaiten gitxu haat, eta orduko inak zitxin, gure... Utziak baigintien galde ek an, gure lauenak prest zitxun, beala ukan gintxin ta are, partitu bizikletez, ta jin gintxun beste leku batetaik, Hôpital Saint-Blaise bakixia nun den, Hôpital Saint... Ez... Camp de Gurs, Camp de Gursen pastu gintxun, ala Hôpital Saint-Blaise ua da?

E.: ondoan.

B.: ondoan. Hantik jin gintxun bizikleta... Eta gu Oloonetik partizian, goizian, iziarriko denbora iluna, zifli-zafla elurra asten, ta hantik pastu ginelaik Hôpital Saint-Blaisen pastu ginelaik, Mauleat arribatu gabe, Xuberotik ola, bizikleta geio blokatia, beti elurra ai zuxun loditzen, eta bizikleta blokatia, geio herrestan, ta ene laguna debruillanta baitzen aoztei bat ikusi ta han baginixin merteillu ta burdina hostu gintxin zerak, eta Maulea jin, han, ez dakit bate ze, ticketak bear gintxin, ez zuxun ostatietan e, zeait jan ginixin asteko, ta Oxxaxen hunat jin, berriz atseko etxeat, Hoztatik, Oxxax... Col d’Osquich, Saint-Just, Hozta ta etxeat, hara.

E.: Mendiberaino?

B.: gure orduko orroitzapenak nola dien, Mendibeano.

E.: bainan kontent, Alemanian ez zineztela...

B.: kontent, ez ginelako joaiten, ta gero gerla finitu zuxun, lekutu zitxun denak alemanak ementik.

#### **Garaziko euskararen hizkuntza aldakortasuna**

Alexander Artzelus Muxika

Zuzendariak: Iñaki Camino Lertxundi Juan Manuel Hernández-Campoy

Doktorego-tesia Gasteiz, 2021

Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak Saila

Euskal Hizkuntzalaritza eta Filologia doktorego-programa

Letren Fakultatea

UPV-EHU

Lan honen kariatara, Eleketan agertzen diren lekukotasun zati batzuen transkribapen lan bat egin du.

Hitz osoak idazteko orde, ahoskerari lotu zaio egin ahala